

ASTEARI ZEHARKA BEGIRA

Pintzel fina ateratzeko garaia

PELLO OTXANDIANO > 11

HARIZ HARI, SORGINDU HADI:

Isilegi bizi eta isilegi joan diren
emakume segurarrei aitortza > 12

2020ko urtarrilaren 18a | XIV. urtea • 655. zenbakia
0,50 euro


GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info

HONG KONG, ZORATZEKO BIDEAN

> 4 Isaac LAWRENCE | AFP





8

**Herritarren protestek gatazka
armatuek adina nahastu dituzte
hongkongtarak** 04

**Ikatza behera eta energia garbiak
gora... Alemanian** 07

**Nigeriako agintariak, Biafrako
Gerra inoiz izan ez balitz bezala** 08

**Segurako emakumeen historia
isila eta isildua, ahots goran** 12

**Elkar Ilustrazio eta Ipuin
Lehiaketak, hamabigarrena** 18

**Elkarrizketa: Mirene Begiristain,
ekonomialaria** 22

104 astelehen 26

Juantxo Egañaren behatxulotik 31



12



22



SINADURAK:

03 **Gorka Elejabarrieta:** Erresuma

Batuaz bi hitz

10 **Saioa Aginako Lamarain:**

Serie-egunak

11 **Pello Otxandiano:** Pintzel fina

ateratzeko garaia

17 **Exprai**

20 **Arantxa Urbe:** Pantailen lilura

21 **Iker Barandiaran:** Entzun

hitzak

27 **Miren Azkarate Badiola:**

Hurrengoan izango da

27 **Antton Izagirre:** Leiho bat

31 **Amaia Urrejola:** Sexualitatea

zahartzaroan



{ datorrena } **Gorka Elejabarrieta**

Erresuma Batuez bi hitz

A spaldi irakurri nuen “Long Walk to Freedom”, Nelson Mandelak idatziriko autobiografia. Liburuak eragin handia izan zuen niregan, zenbait gauza ikusteko eta begiratzeko modua aldarazi didaten liburu horietako bat izan da. Oroitzen dut liburu horretan Nelson Mandelak Erresuma Batuko demokrazia goraipatzen duela zenbait unetan. Garaian harritu egin nintzen, britainiarren curriculum koloniala ez baita nolana hiko, gauzatu dituzten sarraskien tamainakoa. Jakin banekien, gainera, Nelson Mandela irlandar errepublikaren zalea eta laguntzaile amorratua izan zela. Egia esateko, ez nituen ulertzen eta apur bat haserrarazi ninduten horrelako aipamenek. Ez dut esango egun hobeto ulertzen ditudanik, ez baita egia. Nire iritzia berdintsua da, baina aitortu beharra daukat hobeto eta gehiago ezagutzen ditudala britainiarren pragmatismoa eta bereziki daukaten aurreikuspen gaitasuna; eta beti lortzen dituzten emaitza onak (haien buruarentzat noski) harrituta naukatela.

Erresuma Batua Eskoziak, Irlandaren zati batek, Gales eta Ingalaterrak osatzen dute. Ez dute inolako konplexurik ezta beldurrik ere nazio ezberdinak direla aitortzeko. Urteak aurrera doaz, baina Britainiar Inperiari lotuta izandako herrialdeak biltzen dituen Commonwealth nazioarteko erakundea mantentzea lortu dute eta Europar Batasuna bezalako klub bat uzteko balentria erakutsi dute. Globalizazioaren aitzindari eta bultzatzaile nagusietako bat izatetik, subiranotasun nazionala eta protekzionismoa babestera pasa dira.

Boris Johnson lehen ministroak Eskoziako bigarren erreferenduma ez duela baimenduko esan du, baina, egia al da? Kataluniari buruz hitz egiterakoan zenbaitetan aipatu ditugu eskoziarrek egindako erreferendum adostua edota Erresuma Batuen jarrera eta praktika demokratikoak eredu bezala. Erresuma Batuen “espainiaritzaren” aurrean ote gaude? Ez dut uste.

1997an, Irlandako bake prozesuaren erdi-erdian, Eskozian eta Galesen gobernu eta parlamentu propioak eskuratzearen aldeko erreferendumak egin ziren. Gehiengoa baietzaren azaldu zen, parte hartzea aparte-

koa izan ez bazen ere. Galesen herritarren %50,22 joan ziren bozkatzera, eta, Eskozian, %60,18 (2014ko independentzia erreferendumean eskoziarren %84,59ek parte hartu zuten). Irlandako bake akordioa 1998ko apirilaren 10ean sinatu zen, Galeseko Autonomia (Wales Act) 1998ko uztailaren 31n onartu zen eta Eskoziako Autonomia (Scotland Act) 1998ko azaroaren 19an. Zazpi hilabete eskasetan estatuaren erreforma oso bat aurrera eramateko gai izan ziren, Erresuma Batua zetozkion erronken aurrean bere burua prestatzeko gai izan zen. 2014ko irailaren 18an eskoziar independentzia erreferenduma egin zen eta ezetzak irabazi zuen.

David Cameronek emaitzak aztertzeko diskurtsoan esandakoak dauzkat gogoan, eta orduan ere antzeko sententzia izan nuen. Cameronek Eskozia, Ipar Irlanda eta Galeseko autonomiak aldatu eta eskumen gehiago aitortuko zizkiela esan zuen; estatuaren beste erreforma bat etorriko den egoerari baldintza hoberenetan erantzun ahal izateko. Horretxegatik guztiagatik, nire ustez, egun Boris Johnsonek Eskozian bigarren erreferendumari emandako ezetza baietza bilakatuko da datozen hilabeteetan edo urte gutxiko epean, baldin eta

Nire ustez egun Boris Johnsonek Eskozian bigarren erreferendumari emandako ezetza baietza bilakatuko da datozen hilabeteetan edo urte gutxiko epean

eskoziar independentistak erreferenduma ikur hartuta bertako hauteskundeak irabazteko gai diren. Ziur naiz datozen urteetan Eskozian bigarren erreferenduma ikusiko dugula, baita Irlandan erreferenduma edo erreferendumak ere bai. Erresuma Batuek etorkizunerako bere burua prestatzen jarraitzen du, Eskozia eta Irlanda gabeko etorkizun baterako, Europar Batasunetik kanpo eta Ameriketako Estatu Batuek zein Commonwealth nazioarteko erakundeak ematen dioten segurtasuna profitatuz. Ez dakit Nelson Mandelak arrazoia zuen edo ez, baina aitortu beharra dago gaur egun hobe litzatekeela guretzat Erresuma Batuen menpe egotea Espainiako Erreinuaren menpe baino. •

TXINA

Herritarren protestek gatazka armatuek adina nahastu dituzte hongkongtarrak

Zazpi milioi biztanle dituen Hong Kong hiriko helduen heren batek azken bola da honetan trauma osteko estresa sufritu duela eman du jakitera “The Lancet” aldizkari zientifikoak argitaratu berri duen ikerketa batek. Estres hori Pekingo agintarien erabakien aurka egin diren manifestazioek eta horien kontrako errepresioak eragindakoa da. Hongkongtarraren protestaldia oso serioa dela ematen du aditzera datuak. Eta Txinako Gobernuak ez duela ezer konponduko ezizusiarena eginda.

Datu batzuk oso argigarriak dira. Esaterako, herritar helduen %10 inguruk depresio

 **JENDARTEA** / joseangel.oria@gaur8.info

Hong Kong hiriko heldu ugarik, bertan azken hilabeteotan egin diren mobilizazioen eta segurtasun indarrek emandako egurraren eraginez, trauma osteko estresa sufritu dutela eman du jakitera «The Lancet» aldizkari zientifikoak. Politikaren inguruko berriak jasotzeko sare sozialetara joz gero, depresioa errazago iristen da.

sintomak aurkeztu ditu, hau da, gatazka armatuetan edo atentatu ikaragarri baten ondoren erregistratzen diren ehunekoaren tankerakoa. Hong Kongeko Unibertsitateko ikerlariek azken hamar urteotan egin duten lanaren

Egungo Gobernuaren aurkako manifestariak Edinburgh Placen, joan den igandean.
Dale DE LA REY | AFP

emaitza da orain aurkeztu duten txostena.

Iazko ekainean hasi ziren herritar gehienak nahastuta dituzten protestaldiak. Agintariek lege proiektu bat aurkeztu zuten herritarrak kontinentera estraditatzeko asmoarekin,

baina manifestariek ezetz esan zioten Carrie Lam gobernadoreari, Pekinek kolonia ohiaren buruan ipinitako emakumeari alegia. Lege proiektua erretiratu egin zuten, baina beranduegi, ordurako Hong Kongeko kaleek anbizio handiagoko helburuak zituzten-eta: sufragio unibertsala ere exijitzen dute manifestariek, Pekingo agintariek aditu nahi ez duten eskaria.

BESTE HERRIEKIN BAT

Hong Kongeko manifestariek eutsi egin diote protestari egurra jasota ere. Gainera, sekulako trebezia erakutsi dute munduan egiten diren beste protestekin bat egiteko, Kataluniakoekin esaterako, eta mobilizazio ikusgarriak, ezkutatu ezin diren horietakoak, antolatzeko: aireportuaren okupazioa, esaterako.

Agintariek 6.000 lagun atxilotu dituzte hilabeteotan. Mila manifestariri delituak egotzi dizkiete. Gobernuaren aldeko manifestariek (horiek ere beren burua kalera atera beharrean sentitu dute) hitz gogorak erabili dituzte auzitegien aurka, liskarrak saihesteko nahikoa egin ez dutelakoan.

Hong Kongeko Unibertsitateko ikerlariek egin dituzten kalkuluen arabera, iazko ekainean hasitako krisiak 2014ko Aterkien Iraultzak baino askoz ere zauri gehiago utzi ditu. Oraingo prebalentzia (gaixotasun jakin bat dutenen populazio osoarekiko portzentajea) ordukoa baino sei aldiz handiagoa da. Txostenaren egileek nabarmendu dute 2014ko protestaldietan ez zela indarkeriarik izan manifestazioetan.

Lan horren arabera, 2015eko martxoan helduen %5ek zeuzkaten trauma osteko estresaren sintomak, eta 2019ko irai-





letik aurrera kopuru hori %32raino iritsi da. Depresio sintomei dagokienez, gaur egun herritar helduen %11k dituzte, Aterkien Iraultzaren garaian kopuru hori %2ra baino iritsi ez zenean. 2017an, helduen %6,5ek, 2015ean baino gehiago eta gaur egun baino gutxiago.

Sare sozialen eragina ere neurtu dute ikerlariak. Politikaren inguruko berriak jasotzeko sare horietara joz gero, depresioa edo trauma osteko estresa jasateko aukerek gora egiten dute.

18.000 ELKARRIZKETA

«Arazo psikologikoen gorakadari aurre egiteko nahikoa baliabiderik ez dugu Hong Kongen», adierazi du Gabriel Leung irakasle, Hong Kongeko Unibertsitateko fakultateko dekanu eta ikerketa egin duen taldeko zuzendarikidea.

Ikerlariak milaka elkarrizketa egin dituzte 2009az geroztik. Giza mugimenduen herriarren osasun mentalean duten eraginari buruzko inoiz egin den lanik handiena da, egileen arabera: 18.000 per-

Goiko irudian, manifestari batzuek eramandako Erresuma Batuko eta AEBetako banderak.

Dale DE LA REY | AFP

Eskuinean, goian, Geoffrey Ma Tao Li Hong Kongeko Auzitegi Goreneko presidentea.

Philip FONG | AFP

Eskuinean, beheko irudian, independentziaren aldeko banderak hongkongtarren mobilizazio batean.

Dale DE LA REY | AFP

tsonarekin hitz egin zuten. Hala ere, ikerketak ez ditu kontuan hartu adingabeak, 18 urte bete gabe dituztenak, eta, adituen arabera, populazioaren sektore horrentzat protesten ondorioak beste inorentzat baino arriskutsuagoak dira.

«Mundu osoan gora egiten ari da aztoratuta dabilzan gi-



Sare sozialen eragina neurtu dute. Politikaren inguruko berriak jasotzeko sare horietara joz gero, depresioa edo trauma osteko estresa jasateko aukerek gora egiten dute

Hong Kongeko manifestariak sekulako trebezia erakutsi dute munduan zehar egiten diren beste protestekin bat egiteko, urrian Kataluniakoekin egin zuten moduan

zarteen kopurua. Bartzelona, New Delhi, Paris eta Santiago bezalako hiri handietan, arazo sozialek populazioaren osasun mentalean duten eragina osasun publikoaren oinarritzko kontua da gaur egungo egoerari», nabarmendu du Michael Ni Hong Kongeko Unibertsitateko irakasle eta ikerlariak.

KRISIAREN DIMENTSIOAK IKUSITA, NEURRI BEREZIAK IRAGARRI DITUZTE EPAILEEK


Geoffrey Ma Tao Li Hong Kongeko Auzitegi Goreneko presidenteak aste honetan iragarri du «indar operatibo berezi» bat sortuko dutela protestek gero eta atxilotu eta inputatu gehiago eragiten dituztela ikusita.

Hiriko justizia administrazioak ez du bere lana bete, Pekinen aldeko herritar batek baino gehiagok salatu dutenez. «Bigunegiak» izatea leporatu zaie epaileei. «Garrantzia dauka askatasunak bere mugak dituela ulertzea. Esaterako, ezin da besteen askatasuna kaltetu. Norberaren askatasunaz gozatzeko eskubidea ezin da erabili besteen jabetzak kaltetzeko edo indarkeria sortzeko», adierazi zuen erretiratzera doan epaileak. 2010ean hartu zuen presidente kargua eta Ma bertan izanik jazo dira Hong Kongeko mobilizaziorik ikusgarrienak.

Manifestarien ustez, Pekinek gero eta gehiago esku hartzen du hegoekialdeko hirian eta jarrera horrek eragin du herritarren haserrea. Txinako Gobernuak, berriz, Ameriketako Estatu Batuetako eta Erresuma Batuko gobernuei egotzi die egoera egoera kritikoa bultzatzea.

Kenneth Roth estatubatuarra da Human Rights Watch (HRW) giza eskubideen aldeko erakundeko zuzendaria. Aste honetan Kong Kongera joatekoa zen, aurtengo txostena aurkeztera, baina hiriko agintariak ez zioten bertara sartzen utzi ere egin. «Hong Kongera iristea debekatzeak oso garbi uzten du zein den arazoa», adierazi zien kazetariei Rothei. Edonola ere, HRWko buruak onartzen du berari gertatutakoa ezin dela alderatu txinatar ekintzaileek pasa behar izaten dutenarekin: espetxea, torturak eta desagerrarazteak.

Rothei pasatakoa beste batzuek ere pasa behar izan dute. Hong Kongeko egungo agintariak ez dituzte beren jarduerak salatzen dituzten pertsonak onartu nahi. Gutxiago, Pekinen ahuleziak agerian utziko dituzten



lekukoak. Erresuma Batuko kolonia ohian izandako protestak dokumentatu zituen AEBetako argazkilari bati urtarrilean itxi zizkioten ateak, herrialde bereko Dan Garrett irakasleari irailean, eta, AEBetan erbesteratuta bizi den Tiananmengo protestaldietan buru izandako Feng Congderi, ekainean.

Rothei uste du Txinako Gobernuaren jarrerak beste estatuen esku hartzea exijitzen duela momentu honetan. «Egoerarekin kezkatuta dauden gobernuek jarrera tinko bat hartu beharko lukete», esan du. Erantsi du giza eskubideen aldeko lana egiten duten taldeei oztopoak jartzea ez litzaiokeela onartu behar

Kenneth Roth estatubatuarra, Human Rights Watch giza eskubideen aldeko erakundeko zuzendaria.
John THYS | AFP

Pekini eta zerbait egin beharko luketela gainerako potentziek, «beranduegi izan baino lehen».

Geng Shuang Txinako Atzerri Ministerioioko eledunak herrialdera sartzeko baimena ematea beraiei dagokiela gogorarazi du: «Ekintza eta froga askok erakusten dute gobernu kanpoko erakunde horrek Txinaren aurkako erradikalei laguntza eman diela eta muturreko indarkeria kriminalari arnasa eman diola».

«Separatistekin» bat egitea ere leporatu dio eledunak HRWko kideari: «Hong Kongeko gaur egungo kaosaren erantzule garbia da. Erakunde hauek zigortu egin behar dira, prezioa ordaindu beharra daukate».



Ina FASSBENDER | AFP



IKUSMIRA

IKATZA BEHERA ETA ENERGIA GARBIAK GORA... ALEMANIAN

Alemaniarako herritarrek energia zikinen aurka gehien borrokatu diren artean daude. Ina Fassbenderen argazkiak egoera gaur egun nola dagoen ederki asko azaltzen du: azpian eta beherako joerarekin ikatza, aire zabaleko meategia alegia; eta gainean, haize-sorgailuak, erabat garbia ez bada ere, erregai fosilek baino askoz gutxiago kutsatzen duen aukera. Alemaniako Estatuak 4.350 milioi euro emango dizkie konpainia elektrikoei, ikatza uztearen truke, eta beste 40.000 aurreikusi ditu energia garbieraren aldeko apustuak kaltetuko dituen eskualdeen zatit. Erabaki horren efektu onen artean dago Hambacheko jatorrizko basoa (Alemania osoko zaharrenetakoa) salbatzea, diruzalekeriaren eta manifestarien arteko gatazkaren erdian egon den alderdi paregabea. Basoaren aldekoek bisitokiak eraiki zituzten zuhaitzetan, pentsa! Milaka lagun pasa da bertatik azken hilabeteotan.

joseangel.oria@gaur8.info

AFRIKA

Biafrako Gerra inoiz izan ez balitz bezala jarraitzen dute Nigeriako agintariek

 POLITIKA / Agence France-Presse

«Herritar guztiek gauza bera nahi zuten, aurrera ateratzea, ez atzera begira jarraitzea». Chika Oduah nigeriar jatorriko estatubatuar kazetariak horrela esplikatu zuen zergatik bere amak inoiz ez zion kontatu haurtzaroan bi urte egin zituela errefuxiatu eremu batean. Biafran War Memories atarian Oduahk jasotako ehunka lekukotasun bildu ditu.

Nigeriako idazle gazteen artean Diekoye Oyeyinka da ezagunenetakoa. Eskolarik onenetan ibilitakoa da, baina bere gelako lagunek bezala, haurtzaroan ez zuen “Biafra” hitza entzun ere egin. 14 urte

zituen hitzaren berri izan zutenean. Esanguratsua. Nigeriako historiako kapitulu oso bat, negargarriena, ezkutatu egin zaie egungo umeei.

Oyeyinkari ez zioten Biafra zer den eskolan esplikatu, ikasle-egoitzako logelan baidzik. Beste ikasle askok bezala, lurraldearen independentzia

Biafraren aldeko soldadu eta herritarrek, kontzentrazio esparru batean preso, 1967an.
Colin HAYNES | AFP

eskatzen zuten panfletoak banatzen zituen mutil bati esker izan zuen gatazkaren berri. «Guk ez genekien zer zen Biafra», dio orain 33 urte dituen nigeriarrek.


Gaztetxoak ez zekien Nigeriak 1960an bere independentzia lortu ondoren, zenbait lurraldek ospa egin nahi izan zutela. Ezta 1967an herrialdeko hego-ekialdean XX. mendeko gatazkarik odoltsuenetako bat hasi zela. 1970ean bukatu zen gerra. Urte haiek dira egungo agintariek armairuan gordeta eduki nahi dituztenak.



Oyeyinka idazleak orduan jakin zuen igbo etniako jeneralek Biafrako Errepublikaren independentzia aldarrikatu zutela 1967ko maiatzaren 30ean. Eta une horretan inoiz ezagutu ez den krudelkeria bertatik bertara ikusi behar izan zuten probintzia horretako herritarrek. Oreakarik gabeko gerra izan zen: sekulako armak eta baliabideak alde batean, eta ia esku hutsik borrokatzen ziren soldaduak bestean. Hala ere, «gerra zibila» esaten diote. Nigeriako agintariek propio eragindako goseteak milioi bat hildako utzi zituen. Iturri batzuek diote bi milioi pertsona ere hil zituela jateko ezer ez edukitzeak. Inoiz ez zituzten zenbatu, gosetea eragin zutenei ez zitzaizen komeni-eta.

EZTA MEZA OFIZIAL BAT ERE

Berrehunen bat milioi biztanle dituen Nigerian agintariek ez dute ezer egin gerra zikin haren mende erdia bete dela gogorarazteko. Ez ekitaldi ofizialik, ez oroigarririk, ez meza ofizial bat... Ezer ez.

Oyeyinka idazleak bere irakurketa eginga du: «Gure herrialdeko historia oso basatia izan da. Belaunaldi zaharrek





trauma izugarriak pasa behar izan dituzte. Baina sufrimendu hori alfonbrapean gorde dugu, inoiz izan ez balitz bezala. Baina iragana ezagutu gabe, akats berberak egingo ditugu».

«Historia politikoa etengabe errepika ez dadin», «Erraldoiaren mina» eleberria idaztea erabaki zuen Oyeyinkak. Lan historiko zoragarri horrek Afrikako potentzia nagusian 1950etik 2010era gertatutako gorabeheren berri ematen digu eta, bertan, «gerra zibila da gertaerarik garrantzitsuen».

Beste idazle batzuek ere aztertu izan dute Biafrako Gerra, baina lan hori normalean igbo etniako egileek hartu dute. Aipatzekoak dira Chimamanda Ngozi Adichieren «Eguzki erdi horia» eta Chinua Acheberen «Bazen herrialde bat». «Egun batean, igbo etniako lagun bat haserretu egin zitzaidan. 'Ezin duzu geure historiari buruz idatzi, geure gatazka da!'. Tan-kerako traumak sendatzen ez baditugu, Nigeria lehertze-argi dagoen presio-eltzea izango da», idazle gaztearen ustez.

Enugu Biafrako Errepublikako hiriburu izandako hirian



guztiak dute gogoan 1970eko urtarrilean gertatu zena, igboen errendizioa eta Gowon jeneralaren hitzaldi ospetsua. «Ez irabazlerik ez galtzailerik» ez zegoela adierazi zuen agintean zegoen militarrek gerra amaitzean.

Mende erdi geroago, Biafrako zenbait eraikinetan ikusten dira errepublikaren banderak,

Nigeriako agintariak propio eragindako goseteak milioi bat hildako utzi zituen. Iturri batzuek diote bi milioi pertsona ere hil zituela jateko ezer ez edukitzeak

Berrehun bat milioi biztanle dituen Nigerian egungo agintariak ez dute ezer egin Biafrako Gerra bihozgabearen amaieraren mende erdia bete dela gogorarazteko

Goian, ezkerrean, Moise 14 urteko umea 1968ko abuztuan soldadu bihurtuta, Nigeriako tropak hurbiltzen ari zirenean. Eskuinean, neska gazteak 1967an, Enugu Biafrako hiriburuan milizianoen desfile batean esku hartzen.

François MAZURE | AFP

Azpiko irudian, Odumegwu Emeka Ojukwu Biafrako koronela 1967ko abuztuan. 13 urte egin zituen erbestean eta 10 hilabete kartzelan.

AFP

haizearen eraginez mugitzen direnak segurtasun indarrek suntsitzen dituzten arte, oraindik lurralde hartan jarraitzen baitute.

BELAUNALDI BERRIAK

Igboek Nigeriako hirugarren etnia osatzen dute, joruba eta hausen ondoren. Hala ere, agintariak baztertzeko dituzte-lakoan daude, Muhammadu Buhari presidenteak ez dituela modu zuzenean tratatzen.

Pat Utomi irakasleak esplikatzeko du 1980an igboek berriak ahaztuta zutela Biafrako Gerra, baina azken belaunaldiak gogora ekarri dutela: «Egungo gazteria askoz ere ozpinagoa da».

Iazko abuztuan Enugoko aireportua itxi egin zuten, konponketak egin eta apirilean berriaz zabaltzeko asmoarekin. Batek baino gehiagok igbo etniaren kontrako erasoak ikusi zuen. Gainera, Lagos hirian etnia horretako biztanleen dendak kaltetu zituzten abenduan. Gerra zibila ezagutu ez zuten gazteentzat independentzia aldarrikatzeko arrazoi berriak dira.



Saioa Aginako Lamarain
Psikoterapeuta

Serie-egunak

Zer egingo duzu gaur? Bada, atzo egin nuen gauza bera eta bihar egingo dudana gauza bera: errutinak agintzen duena. Jaiki, gosald

du, jantzi, ordenagailuaren aurrean posta elektronikoa irakurri, bizikleta-rekin betiko ibilbidea egin, nire mahaitik paper batzuk desagertuko dira eta beste batzuk jarriko ditut, kafearen ordua iritsiko da, eta ikusten ari naizen telesailaren azken kapituluari buruzko elkarrizketa edukiko dut.

Errutina usadio eta ohitura pertsonalen multzo gisa defini dezakegu. Logikoa den bezala, beharrezkoak dira gizartean bizikidetzatza egokia izateko. Adibidez, oso positiboak dira haurren bizitzan, segurtasuna eta lasaitasuna ematen baitiete; helduenean, hartu behar ditugun erabakien kopurua biderkatzea saihesten dutelako. Egun batean hartutako erabakia, ohiturak, askorentzako erabaki bihurtzen du.

Errutina, ekintzak mekanikoki errepikatzearen poderioz, horietara ohi-tzea da. Pertsona bat egunero goizeko zazpitan jaikitzen denean, dutxatu, gosalduta eta lanera iristeko autobusa hartzen duenean, ez du pentsatu edo erabaki beharrik: besterik gabe, egin egiten du. Errealitatearen gaineko kontrola dago, errealitate ordenatua, eta hori, pertsona gehienentzat, bereziki irrikatsuentzat, lasaigarria da. Ohiturek babestu eta lagundu egiten diete gizabanakoei seguru sentitzen, badakitelako zer espero. Gainera, gure eguneroko ekintzak automatizatzeak eta diziplina baten pean jartzeak aukera ematen digu denbora gehiagor gozatzeko, eta gure burua eta gure indarrak gai beharrezkoagoetan edo atseginagoetan erabiltzeko. Errutinak, errentagarri egiten ditu gure denbora eta ahalegina, eta interesatzen zaigu-

na biziago bizitzeko aukera ematen digu. Errutinek bizitza atontzen dute.

Hala ere, une bat irits daiteke, errutina hori zurrunezia bada eta arnasa hartzeko momenturik aurkitzen ez badu, estugarria izatera irits daitekeela, eta asko. Baina gero, errealtatean, egunero egiten dena ez egiteak, hasieran behintzat, malda handiko aldapa bat igotzea dakar gehiengoarentzat. Aldapak aldapa, errutina zurrunegiek lagun dituzte motibazio falta, nekesentsazioa, nolabaiteko malenkonía eta umore-aldaketak.

Beraz, egunerokotasunarekin eta plangintzarekin hausteko modurik onenak inprobisazioarekin du zeri-kusia. Hasi gaitezke eguneroko errutina oinarritzkoenetan aldaketa txikiak sartzen: gosaria, lanera joateko hartzen dugun bidea edo garraio-

dea, arropetan kolore berriak sartu... Gustatuko zaizkigula aurreikusten dugun jarduera berritzaileak egiten ere has gaitezke, baina baita noizean behin gustuko izango ez dugula uste dugun baina besteek gomendatzen diguten jardueraren bat egiten ere. Agian ustekabe positiboak hartuko ditugu. Errutinen aldaketan dihardugunean, esperientzia berrietara irekita egotearen jarrera hartzeak asko lagundu digu gure zereginean.

Hortaz, esan dezakegu errutinak energia aurrezteak dakarrela, baina, era berean, kostu handi bat ere bihur daiteke harengan arreta jartze-ari uzten diogunean eta gure errutina gu geu programatzera pasatzen denean. Zer egingo duzu gaur? •

saioaaginako@gmail.com



Errutina usadio eta ohitura pertsonalen multzo gisa defini dezakegu.

{ asteari zeharka begira } **Pello Otxandiano**

Pintzel fina ateratzeko garaia

Urtea hastearekin hamarraldia estreinatu dugu. Prospekzio askoren arabera XXI. mendeko hamarraldi hau krisi-hari ezberdinen eztanda garaia izan daiteke. Zibilizazio krisia aipatzen da, eta ez dut uste terminoa debaldekoa denik. Ezinezkoa dirudi modernitatearen eta ilustrazioaren zimenduen gainean eraiki den garapen eredu hau erradikalki in-pugnatu gabe ordena iraunkor eta egonkor bat imajinatzerik. Kolapso planetarioa aukera guztiz erreala da epe ertainean. Hamarraldi honek norabidea zuzentzen has-teko garaia behar du halabeharrez.

Eta, hara non, mugarrria izan daitekeen hamarraldi honen atarian, Espainia bihurtu den Europako ezkeraren esperantza. Azken hilabeteetako bilakaera ikusita behintzat ez dirudi Pedro Sanchez printzipio sendoko pertsona denik. Hautu bat egin du azkeneko, zerk motibatua eta zer konbentzimendurekin galdetzea zilegi bazaigu ere, gutxi axola du. Kontua da II. Errepublikaz geroztik ikusi ez den gobernu konfigurazio baten aurrean gaudela. Egoera berria da. Lehen aldiz Espainiaren historian “sistemaz kanpoko” indar politikoek eusten diote Estatuaren gobernarritasunari eta bere demokratizazio aukerari –ondorioz bere egonkortasunari–. Paradoxa da, neurri batean. Eta galdera segituan datorkigu burura: gobernu hau sostengatzeak 78ko erregimenari oxigenoa ematen dio ala erregimenaren krisiaren sakontzea ekar dezake independentismoa indartzearen bidetik?

Ezegonkortasunean bizitzera kondenatuak gaude. Gobernu honen ahulguneek indargune izaten bukatuko duten ala bide laburra egingo duen, denborak esango du. Edonola ere, gaur-gaurkoz, PSOE-Podemos gobernuak hautu berdinzalea ordezkatzeko du, baita Euskal Herrian ere. Izan ere, gustuko ez dugun arren, ireki den aukera honek marko kognitibo espainiarra indarrez ezartzen du gurean, eta Katalunian. Egoera berriaren aurrean, independentismoak bere hautua egin du, dituen indarguneen jakitun: giltzarria da gobernarritasuna bermatzeko eta aukera du esperantza aurrerazalearen

aliatu ezinbesteko izateko, eta, ondorioz, partida ondo jokatuz gero, baita hautu aurrerazalearen abangoardia gisa proiektatzeko ere Espainiako sektore aurrerazaleen zein Kataluniako eta Euskal Herriko gizartearen aitazinean.

Horretarako, baina, egoera berri honek bere posizio taktikoa fintzea galdegiten dio. Nola jokatu partida hau? Nola baliatu zenbat luzatuko den ez dakigun garai ezegonkor hau agenda demokratikoa indartu eta herri-prozesua sendotzeko? Ariketa eszeptizismoan instalatu eta aukera hau frustratu dadin zain gelditzea baino zertxobait konplexuagoa da, bistan denez.

Zalantzarik gabe, agertoki honen arrisku handietako bat herri ikuspegi beregaina lausotzea da. Aro historiko honetako erronka kolosalei aurre egiteko baldintza eta gaitasun propioak izan ditzakegu herri gisa. Funtsezkoa da euskal subjektibotasun beregaina erreproduzitzea. Epe ertainean datorkigun gizarte-moldea nolatsukoa den aurreikustea ariketa batere ziurra eta erraza ez den

Independentismoak badu heldulekurik
hamarraldi honetan indarrez
posizionatzeko, uste dituenak baino
sendoagoak seguru aski

arren, independentismoak badu heldulekurik hamarraldi honetan indarrez posizionatzeko, uste dituenak baino sendoagoak seguru aski.

Bi hanken gainean jokatu beharko du partida hau: gobernu baina pausu bat aurretik ibiltzen saiatuz eta marko estatalak irekitzen dizkion aukerak baliatuz hautu aurrerazalearen lidergoa bereganatzeko. Eta, aldi berean, eraldaketarako Euskal Egitasmoa edukiz betez, alaketarako marko eraginkorrena Euskal Herria dela frogatuz bertako sektore aurrerazaleei.

Eta, horretarako, pintzel fina ateratzera behartua dagoelakoan nago. Etorriko diren olatuak estatu propioaren aldeko errelatora biltzeko errazkeriatik urrun behar du. Diskurtsoa eta proposamenak sofistikatu eta janzteko premia du independentismoak Euskal Herrian. •

ISILEGI BIZI ETA ISILEGI JOAN DIRENEN IZENAK ETA IZANAK, AHOTS GORAN

Amagoia Mujika Telleria

Askotan historia zuloz betetako oihal zahar bat da. Historia kontatu dutenek ahaztu dituztenak edo isildu dituztenak begitantzen dira zulo horietan. Horrekin konturatu dira Seguran; herriko historia kontatzerakoan ez dela bertako emakumerik aipatzen. Lan isilean aritu eta modu isilean joan diren emakumeen izenak eta izanak lehen lerrora ekarri dituzte orain eta «Hariz hari, sorgindu hadi!» ibilbidea osatu dute. Bederatzi geldialdi Segura beste begi batzuetatik deskubritzeko.

Lan isila edo isildua, ikusten ez den harria, igartzen ez den puntada. Beharrezkoa etxea eta herria harilkatzeko, zuloak konpontzeko, josturak indartzeko. Historia emakumerik gabe kontatzen bada, zuloz beteriko historia da. Segurako emakume talde batek erabaki du herriaren historia ahalik modu osoenean kontatu nahi duela eta orain arte falta izan zaizkion txatal batzuk erantsi dizkio.

2015ean emakumeen mundu martxarekin piztu zen txispa, gogoeta feminista horretan sumatu baitzuten herrian hainbeste lan isil egindako emakume asko ez direla ez ikusten ez aitortzen. Hasiera hartan Lixibalekue berreskuratu zuten, garai batean herriko emakumeen topalekua zena. «Espazio hori berreskuratu genuenean, konturatu ginen Segurako historian bazela hutsune handi bat. Segurako emakumeen historia ez zegoen inon, kale guztien izenak gizonezkoenak dira, adibidez. Hor hasi ginen hutsu-neari bueltak ematen eta prozesu hau martxan jarzen. Prozesu horren baitan emakume talde bat sortu genuen eta ahalduntzea bultzatu. Horretarako ere balio izan du», kontatu du Eider Murgiondok. Murgiondo proiektuaren bultzatzailea da eta aurreko legealdian Parekidetasun zinegotzia izan zen.

Farapi kooperatibaren laguntza izan dute bidean. «Ahalduntze prozesu horren barruan, taldea bera hasi zen irizpideak ezartzen tokiak, izenak, jarduerak... aukeratzeko. Prozesua askotarikoa izan da. Gertatu izan zaigu espazio bat edo emakume bat erreferentziatzat jotzea taldeak eta, gero, emakume horrek parte hartu nahi ez izatea edo nabarmendu nahi ez izatea. Oraindik askotan kostatu egiten zaigu emakumeei lehen lerrora etortzea».



Eider Murgiondo proiektuaren bultzatzailea eta aurreko legealdiko Segurako Parekidetasun zinegotzia eta Izarra Urdailleta herriko alkatea, gidari lanak egiten joan den asteburuan egindako ibilbidearen estreinaldian. Jagoba MANTEROLA | FOKU

Azkenean, bederatzi geldialdi proposatu dituen ibilbidea osatu dute Seguran, “Hariz hari, sorgindu hadi!” izeneko bidea hain justu. Ertz ugari ukitzen ditu bideak; amatasuna, zaintza, base-rria, ostatuak, lan mundua, kirol arloa, osasuna... Atzetik dokumentazio lana dago; bai han eta hemen topatutako dokumentuetatik eta baita nabarmendu nahi diren emakumeen senideen eta ingurukoen testigantzetatik jasoa.

Geldialdi bakoitzean azalpenak jasotzen dituen panela paratu dute, euskaraz. Gero, QR kode baten bidez azalpen hori bera beste bost hizkuntzetan jasotzeko modua dago; espainolez, katalanez, frantsesez, ingelesez eta alemanez.

Joan den asteburuan lehen aldiz ibilbidea osatu ahal izan zen aparteko gidariekin; Maider Murgiondo bera eta Izarra Urdailleta Segurako alkatea. Hamarnaka herritar batu ziren gonbidapenera eta benetan paseo ederra izan zen, bertaratutakoek jakin-minez eta

une batzuetan hunkituta osatu zutena, aipatzen ziren emakume horiek etxe-koak zituztelako edota kontatzen ziren egoerak beren azalean bizi izan zituztelako gazte garaian.

Garai bateko emakume segurarren eskutik eta begietatik, Segura modu berrian deskubritzeko ibilbidea da zalan-tzarik gabe.

1 • KONTXIXIREN ETXEA

“Jausi danok atsoen bila,
herri honetan badira mila
egin dezagun danakin pillak
eta iguin dezagun hazi hila”

“Atso zaharraren atorra zarra
beria balu ezerrez,
kearre baino beltzago dago
Garbitzeko alperrez”

San Joan bezperan abesti hori kantatzen zieten herriko mutil gazteek Seguran haurrik izan ezin zuten (edo izan





nahi ez zuten) emakumeei. Emakumea izan eta umerik ez izatea «baliorik gabeko» emakume izatea baitzen haien tzat, «hazi hila», bertsotan esaten zietenez. Eta hori gutxi ez eta, gainera, pulamentu gutxikoak omen ziren, alferrak eta garbitasun eskasekoak.

Maila horretako burlak eta irainak jasan behar izaten zituzten emakume horiek San Joan bezperan, ekainaren 23an, kalean parrandan zebiltzan segurar gazteen ahotik.

Kontxixi XVIII. mendeko emakume alarguna omen zen, beheko errebeleko etxe batean bizi zena. Hortxe topa daiteke ibilbidearen lehen panela. Kontxixi oso gazte alargundu zen eta ez zuen haurrik. Hartara, San Joan bezperako ohitura mingarri hori ere sufritu behar izaten zuen. Horrekin nazkatuta, herrian «atsotzat» hartzen zituzten emakume guztiei dei egiten zien San Joan bezperan bere etxera. Eta, hantxe, denak elkarrekin pasatzen zuten trago txarra eta taldean egiten zieten aurre bertso mingarri horiek abestera gerturatzaren zirenei. Orain ahizpatasuna esaten zaio.

2 • KATALINA GOIA MURGIONDO

Bigarren geldialdia, Katalina Goia Murgiondo (1911-1979) sukaldari sonatuaren Urnausi baserri inguruan. Jaiotzez mutiloarra zen Katalina, baina oso ume zela etorri zen Segurara familia. Oso gaztea zela Bilbora joan zen neska-me, Sota familiaren etxera. Garai hartan familia aberatsa eta ezaguna zen



Ezker-eskuin, Kontxixi bizi izan zen baserria. Parean jarri dute bere istorioa jasotzen duen panela. Lerroon alboan, goian, Katalina Goiaren sukaldaritza liburua, eta, behean, emaginak.

SEGURAKO UDAL ARTXIBOA eta Jagoba MANTEROLA | FOKU

Bilbon. Sotatarrak laster konturatu omen ziren Katalinak oso esku ona zuela sukalderako eta akademia batera bidali zuten ikastera. Sukaldaritza frantsesaren eragina nabarmena zen XX. mende hasiera hartan Bilbon. Herrira itzulitakoan (guda garaiko hainbat gertakizunen ondoren), Urnausira ezkondu zen eta bertan hasi zen sukaldaritza ikastaroak ematen, bereziki ezkontzera zihoazen neska gazteei. Baina etxea txiki geratu zitzaion, gero eta sona handiagoa zuten bere ikastaroek eta herriz herri hasi zen orduan klaseak ematen; Beasain, Zegama, Legorreta, Zaldibia... Horrez gain, Goierriko hainbat baserrian ezkontzako banketeak antolatzen zituen, baita Segurako Imaz jatetxean ere.

Indar enpresako sukaldeko ardura-duna izan zen 60ko hamarkadatik erretiroa hartu zuen arte, bere bi alabe-kin batera. Sukaldaritzari buruzko bere ezagutzak “Libro de cocina” izeneko liburuan jaso zituen, 50eko hamarka-

«Konturatu ginen Segurako historian bazela hutsune handi bat. Segurako emakumeen historia ez zegoen inon, kale guztien izenak gizonezkoenak dira, adibidez. Hutsuneari bueltak ematen eta prozesu hau martxan jartzen hasi ginen»

Azkenean, bederatzi geldialdi proposatzen dituen ibilbidea osatu dute Seguran, «Hariz hari, sorgindu hadi!» izenekoa. Ertz ugari ukitzen ditu bideak; amatasuna, zaintza, baserria, ostatuak, lan mundua, kirol arloa, osasuna...



dan. Liburuak 500 errezeta baino gehiago jasotzen ditu, hiru edizio argitaratu ziren eta guztiak saldu.

3 • EMAGINEN ETXEA

XX. mendean, Seguran, emagin ugari izan ziren: Ermaxoko amona, Frantxi-ka Galparsoronekoa, Iñazi Osinalde... Ohikoa zen, batez ere baserri munduan, emakumeak beste emakume batzuen laguntza izatea erditzerako garaian. Emaginok oso gutxitan aitortu zaien ezagutza zeukaten, emakumeen gorputzaren eta erditze prozesuaren inguruko ezagutza sakona.

Garai hartan seme-alaba ugari izaten ziren eta ez zegoen egungo osasun zerbitzu egiturarik. Gainera, herrian ziren medikuen zerbitzuak ordaintzeko moduan ziren familia gutxi izaten ziren; medikua etxera ekartzea bost pezeta kostatzen zen.

Medikuntza zientifiko-arrazionala (gizonen esku zegoena) orokortzen hasi zen unean, alde batera geratu ziren bestelako ezagutzak; emaginenak, senda-belarrak erabiltzen zituztenenak... Emakumeen esku zegoen ezagutza bigarren mailan geratu zen, egindako lanaren aitortzarik gabe. Horregatik, ez da ahaztu behar denbora luzez emaginek lagundu izan zietela haurrei jaio-tzen.

4 • LIXIBALEKUA

XIX. mendearen bukaeran (XX. mendearen hasieran kasurik gehienetan) hasi ziren pixkanaka orokortzen zerbitzu publikoak; argi elektrikoa, ur horni-

kuntza... Segurako lehen ur hornikuntza 1904. urtean egin bazen ere, arropen garbiketarako erreka ura erabiltzen zen, XX. mende erdialdean ur horniduraren hobekuntza egin zen arte. Seguran, gutxienez, bi lixibaleku zituzten.

Segurako emakumeek lixibalekuetan egiten zuten topo elkarrekin. Lixibalekuak arropa garbitzeko lekuak izateaz gain, harreman sozialak garatzeko espazioak izan ziren. Emakumeek espazio propio gutxi zituzten beste emakume batzuekin bakarka harremantzeko eta lixibalekuek hutsune hori betetzen zuten.

Fisikoki lan gogorra zen arropa garbitzea, indarra eta abilezia eskatzen zituena. Seguran jasota geratu denez, «*lixiba astelehenetan itten zan, goizena eta txurina zabaltzen zuna, emakumeik haundina*».

5 • OSTATUE

XX. mendean taberna eta ostatuz betea zegoen Segura. Gehienak herri barruan

XX. mendean, Seguran, emagin ugari izan ziren: Ermaxoko amona, Frantxi-ka Galparsoronekoa, Iñazi Osinalde... Ohikoa zen, batez ere baserri munduan, emakumeak beste emakume batzuen laguntza izatea erditzerako garaian

Segurako emakumeek lixibalekuetan egiten zuten topo elkarrekin. Lixibalekuak arropa garbitzeko lekuak izateaz gain, harreman sozialak garatzeko espazioak izan ziren. Zaintzatik eta topagunetik, bietatik zuten gunek horiek



Goian, ezkerretara, lixibalekua XX. mendearen hasieran. Alboan, gaur egungo irudia. 2015ean berreskuratu zuten lixibalekua eta hor abiatu zen prozesua.
SEGURAKO UDAL ARTXIBOA eta Jagoba MANTEROLA | FOKU

zeuden eta beste batzuk inguruko baserrietan ere bai; Malkorran, Etxe Zurin, Madalenen... Baserriak izan eta tabernako zerbitzuaz gain beste hainbat gauza ere eskaintzen zituzten txoko hauek; barberia, denda...

Etxeko gizonak fabrikara joaten ziren lanera eta emakumeak izaten ziren eguneko ordu guztietan bertan lanean aritzen zirenak. Jendea zerbitzatzeaz gain, sukaldeko martxa, familia eta sortzen zen gainerako guztia beraien gain izaten zen.


«Emakumeak lan asko egindakoak gara», dio Madaleno Jesusak. Bere antzera ibiliak dira beste hainbesteren artean Etxe Zuriko Trinidad, Malkorra-ko Nati eta Imazeneko Teresita ere.

6 • BASERRI MUNDUA

Ukaezina da emakumeek baserrien biziraupenean izan duten garrantzia. Baserrian lanaren bi esparruak gurutzatzen dira espazio berean: ardura produktiboak (animaliak, baratza, produktuen ekoizpena eta salmenta) eta ardura erreproduktiboak edo zaintza-koak (haur eta adinekoen zaintza, arropak, janariak, eta abar).

Baserrietako emakumeek bi ardurok izan dituzte, hau, da paper bikoitza: animaliez eta baratzeaz arduratzeaz gain, inguruko guztien ongizateaz ere arduratu izan dira.

Horrela kontaktzen zuten Joxepak, Beatrizek... duela gutxira arte Erbiola baserriko kanpoaldeko petrilean eseri eta kontu kontari aritzen ziren emakume baserritarrek. Beatriz baserrira ezkon-



Goian, bi emakume lanean baserri atarian. Baserrian ardatz garrantzitsua izan da beti emakumea. Lerroon eskuin aldean, emakume talde bat Xesterian lanean.
SEGURAKO UDAL ARTXIBOA
eta Jagoba MANTEROLA | FOKU

du zen eta baserriarekin batera baserrian ziren adinekoen zaintza hartu zuen bere gain. Gainera, urte luzez etxean ekoizten zuten esnea partitzeaz arduratu zen. Joxepa Arrondok baserriko lanen gogortasuna oroitzen zuen, berorik handienez belarra mozten ibili izana.

7 • XESTERIA

Segurako beste hainbat neskatoen moduan, 14 urterekin hasi zen Joxepa Albizu Xesterian lanean. Neskametz baina nahiago izan zuen lantegiko lana. Soldatapeko lanari dagokionez ez zegoen aukera gehiegirik garai haietan. Erregimen Frankista boterean egon zen bitartean, emakumearen rolik tradizionalena indartu zuen, amatasuna



eta etxekoen zaintza erdigunean jartzen zituen rola. Hori bermatzeko, eta emakumeak soldatapeko lanetik urruntzeko, 1938ko Langileen Foruan «emakumeak lantegi eta tailerretako lanetatik askatzeaz» hitz egiten zen. 1942an, behin ezkondata soldatapeko lana uzteko derrigortasuna ezarri zitzaizen emakumeei (salbuespen gutxi batzuekin).

«Ezkondu ginenen, xesterin dotea eman ziguen. Hori izantzan gu despetitzeko modu elegantea».

8 • TXANBOLINPE

Pilota profesionalaren historian gutxi dira emakumeei eginiko erreferentziak. 1920tik 1950era bitartean erraketisten loraldi bat eman zen, baina Eus-

kal Herritik kanpo; espainiar Estatuan, Kuban eta Mexikon nagusiki.

Frontoia «gizonezkoen» espazioa izan da beraz, bai jokalariei dagokionez baita ikusleei dagokionez ere. Baina noski, baziren pilotan aritzea maite zuten neskatoak ere. Eskolatik korrika bizian ateratzen omen ziren Axun, Nati, Etxezuriko Arantxa, Aldatxeko Lurdes eta Edurne Galparsoro Txanbolipen esku pilotan jolastera. Pilotan «mutilek baino hobeto» egiten zutela gogoratzen dute herrian. Garai hartan ez zen ohikoa neskatoak frontoian ikustea, bestelako jolas batzuetan aritzen ziren edo eskola eta gero etxeko lanetan laguntzera joaten ziren.

«Marimutil» deitzen zieten Axun, Nati, Arantxa, Lurdes eta Edurneri, baina



haiek pilotan aritzea zuten maite, tantoak bata bestearen atzetik jokatzeari, etxeratzeko presarik gabe.


9 • ANITA ARZELUS

Anita Artzelus Imaz (1913-1998) zenaren etxe parean amaitzen da ibilaldia. Anitari ume-umetatik zetorkion artea-
rekiko zaletasuna eta modu askotara garatu zuen zaletasun eta gaitasun hura: buztinezko irudiak, oleoz nahiz pastelez margotutako bodegoi, paisaia edota Grekoren kopiak, altzariak zaharberritu, arropak diseinatu, sukaldaritza, nobelak idatzi...

Beleanisten Elkartek antolatutako lehiaketa batera aurkeztutako lan bati esker, Parisera ikastera joateko irabazitako bekari uko egin beharra izan zuen.

Etxeko laguntza behar zuen Parisa joateko eta ukatu egin zioten. Bere etxean semeek goi mailako ikasketak zituzten, baina alabek ez. Eta Anitak ozen aldarrikatzen zuen berak ere ikasi egin nahi zuela. Ez zuen etsi eta urte batzuk geroago, bere urterik gozoenak eta be-
teenak igaro ahal izan zituen Madrilen. Gizarte laguntzaile ikasketak hasi zituen. Baina ama gaixotu egin zitzaien eta zaintza lanek deituta, Segurara itzuli beharra izan zuen, ikasketak bukatu baino lehen.

Ikasteko eta irakasteko grina ez zitzaien itzali bizitza osoan. Alabei irakurketarako eta jakin-minerako zaletasuna transmititu zien eta herrian ere lan handia egin zuen, haur eta gazteei marrazketa eta margolaritza erakutsiz.



Txanbolinpe izeneko gunea, pilotan aritzeko tokia, lehen eta orain. Egunero pilotan aritzen ziren neskatoak dauzka gogoan «Hariz hari, sorgindu hadi!» ibilbideak. Lerro hauen gainean, Anita Arzelus segurarraren sorkuntza bat. SEGURAKO UDAL ARTXIBOA eta Jagoba MANTEROLA | FOKU

Eta horraino, ibilbide fisikoa. Baina hori baino gehiago da, bidea sinbolikoa eta aldarrikapenezkoa ere badelako. Amaieran, hausnarketak piztuta segitzen du; isil-isilik bizitu ziren eta isil-isilik hil ziren emakumeak gogoan. On-
do merezi dute beren izena eta izana ahots goran kontatzea, «Segura posible egin duten ezinbesteko emakumeak» direlako.



EXPRAI

{

iRRITZIA:



IGANDEAN
JENDE ANDANA BILDU
GINEN PRESOEN EGOERA
SALATZEKO.
EA ORAIN ENTZUN
BEHAR DUENAK
ENTZUTEN DUEN...

PRESIDENTE BAT,
4 PRESIDENTEORDEKO,
22 MINISTERITZA,
27 ESTATU IDAZKARITZA...

LOGIKAK DIO NORBAITEK
HARTU BEHARKO LUKEELA
TELEFONOA MADRILEN.
ESKARMENTUAK, ORDEA,
ELKARRI PILOTA PASATZEKO
AUKERA UGARI DAGOELA
IRAKATSI DIGU.

EXPRAI
2020

ELKAR ILUSTRAZIO ETA IPUIN LEHIAKETA

Hitzak marraztu eta marrazkiak idatzi, sortzaile berriak xaxatzeko

 **KULTURA** / Amagoia Mujika Telleria

Mai Egurzak egindako ilustrazioari hitzak zintzilikatu edo Paddy Rekaldek idatzitako ipuina marrazki batean harrapatu. Sortzeko proposamen tentagarriak dira eta haur eta gaztetxoak sortzera animatu nahi dituzte. Elkar Fundazioaren Ilustrazio eta Ipuin Lehiaketak 12. edizioa beteko du aurten hasierako helburuari jarraituz; haur eta gaztetxoek sorkuntza modu aktiboan bizitzea, haiek ere sortzaile bihurtzea. Apirilaren 17ra arte izango da parte hartzeko aukera.





Sormena eta irakurzaletasuna piztea. Horixe du helburu Elkarrek urtez urte haur eta gaztetxoei begira antolatzen duen Ilustrazio eta Ipuin Lehiaketak. Aurten goa 12. edizioa izango da eta dagoeneko parte hartzeko epea zabalik dago. Datorren apirilaren 17ra bitartean jaso ko dira lanak eta hiru modalitate antolatu dira, adinaren eta sorkuntzaren arabera.

Lehen aukera, ipuin bat ilustratzea da. Paddy Rekaldek idatzitako «Kaioa» ipuina oinarri hartuta osatu behar dute lana. Adinaren arabera, hiru maila daude, haur hezkuntzako laugarren mailatik hasi eta lehen hezkuntzako laugarren mailara arte. Bigarren aukera, ilustrazio bat ipuin bihurtzea. Mai Egurzak egindako ilustrazioan oinarrituta ipuin bat osatu behar dute parte hartzera animatzen direnek. Lehen hezkuntzako bosgarren eta seigarren mailakoei eta derri gorrezko bigarren hezkuntzako lehen eta bigarren mailakoei zuzenduta dago aukera hori.

Alboko orrialdean, aurtengo ediziorako Mai Egurzak egin duen ilustrazioa. Lerroon gainean, joan den urteko irabazleak.
ELKAR FUNDAZIOA

Azkenik, komikiaren edo bintaren aukera dago, derrigorezko bigarren hezkuntzako hirugarren eta laugarren mailakoei begira. Kasu horretan, ipuin klasiko bat komiki ala bineta bihurtu beharko dute parte hartzaileek.

KULTURA, MODU AKTIBOAN

Elkar Fundazioak 2009an jarri zuen martxan Ilustrazio eta Ipuin Lehiaketa. «Gizartearen eta kulturaren etorkizun diren haur eta gazteei zuzendutako ekimenaren alde egin zen, kultura modu hartzaile soilean bizi ordez, haur eta gazteak ere modu aktiboan parte hartu zezaten». Fundaziotik nabarmentzen dutenez, kultur esperientzia beste modu batera bizitzeko apustua izan da hasieratik lehiaketa, haurrek eta gaztetxoek «modu aktibo eta kreatiboan» parte har dezaten, sorkuntza prozesuaren parte senti daitezen eta, bide batez, euskarazko beren unibertsoa aberastu dezaten.

Duela hamar urte baino gehiago egindako apustuak emaitza onak eman ditu. Parte hartze datuak esanguratsuak

dira: 2018ko edizioan 9.790 haur eta gaztetxok parte hartu zuten, ilustrazioak eginez gehienak (7.829); iazko edizioan, berriz, 8.785 parte hartzaile izan ziren, ugarienak orduan ere ilustratzaileak (6.312).

Euskal sortzaileentzat ere erakusleho ederra da. «Lehiaketaz harago, sortzaileen lanak bultzatzeko eta ikusgarritasuna emateko tresna bihurtu da. Milaka eta milaka etxe, ikastola eta kultur gunetara sartu eta bere lekua topatzen jakin izan du, familia, elkarte eta haur eta gazteen egunerokotasunaren parte izanik eta erreferente bihurturik», nabarmendu dute Elkarretik.

Sariak interesgarriak dira; jolas hezitzaileen sortak, Elkar Fundazioaren dendetan erabiltzeko opari txartelak, tabletak, Irrien Lagunen aldizkari-rako harpidetzak edota eskolakideekin batera Basque Culinary Center ezagutzeko aukera, besteren artean.

Interesa dutenek, informazio zehatza eta aurtengo ilustrazioa eta ipuina, hemen: postdata.elkar.eus/ilustrazio_eta_ipuin_lehiaketa.

PADDY REKALDEREN «KAIOA» IPUINA

Udazkeneko goiz batean, urtero bezala, kostaldera joan ginen eskolakoak. Karramarro Eguna esaten genion txangoari. Izan ere, egun horretan itsasbazter batera hurbiltzen ginen busez, eta hango kala harritsu batean, harkaitzen arteko putzuetan agertzen zen mundu zoragarria gozatzen genuen: karramarro mota ezberdinak, algak, olagarrotxoren bat, izkirak, itsas-kirikinoak, arraintxoak, anemonak, itsas-izarren bat... Hori bai, marea beheara ezinbestekoa izaten zen halako putzuetara heltzeko. Eta eguna ondo baino hobeto amaitzeko, eguraldiaren arabera, jakina, bainatu ere egiten ginen. Egund hartan, putzuetan salabardoekin ari ginela, tiroak entzun genituen labarren gaineko zelaietatik. «Uso pasea dago –esan zuen irakasleak– gaur hego haizea dabil... eta honantz gentozela ehiztariak ikusi ditut inguruotan». Tiro gehiago entzun genituen goizean zehar, hala ere ez genion kasu gehiagorik egin... kaio hura ikusi genuen arte. «Begira! –esan zuen batek– begira kaio hori!». Eta orduan kaio bat ikusi genuen, hegan baino, jausten...».

[jarraitzen du]



Arantxa Urbe

Hezitzailea eta Hik Hasi-ko kidea

Pantailen lilura

Aitatxori «ogi bila» joateko eskatu behar diola esan dio hezitzaileak jolasean lasai ari den hiru urteko haurrari. Horixe zen, egun batzuk lehenago, hezitzaileek eta etxekoek eskolaratze lehen egun horietarako adostu zuten pasahitza. Pasahitzak, haurra lasai dagoela eta etxekoak gelatik joan daitezkeela adierazi nahi du. «Ez du entzungo, mugikorrarekin ari da», erantzun du haurrak, natural-natural, esku artean duen jostailutik begirada altxa ere egin gabe. Hezitzaileak aita dagoen aldera begiratu du. Ez daki oraindik zerk harritu duen gehiago: haurraren ateraldiak ala haurrak adierazi duen patxadak, egoeraren ohikotasunak soilik eman dezakeen patxadak, alegia.

Zur eta lur ikusi du nola aita, haurrak aurreratu dion moduan, mugikorrarekin ari den, inguratzen duenetik at, pantailan erabat murgilduta. Zenbat aldiz bizi ote du egoera hori haurrak hain egunero-koa bihurtzeko eta hain barneratua izateko, pentsatu du hezitzaileak.

Duela aste batzuk, Myrtha Chokler Psikologian eta Fonoaudiologian doktorea eta, batez ere, Psikomotrizitate arloan ezaguna den argentinarra izan genuen gure artean Hik Hasi Euskal Heziketarako Egitasmoak gonbidatuta. Choklerrek esan zuenez, «teknologiak inbaditu gaitu, eta eraldatzen ari gara, ezagutzen genituen gizakien mutanteak sortzen ari dira. Haurrak gai dira pantaila baten aurrean orduak eta orduak mugitu ere egin gabe geratzeko, adin horretan mugimendua mundua ezagutu eta ulertzeko ezinbestekoa zaienean. Mundu birtualak, existitzen ez denak, liluratu ditu».

Jakina da bizitzako lehen urte horietan haurrak berebiziko beharra duela mugitzeko, mugitzea baita iritsi berria den



Haurrak pantailaz inguratuta bizi dira gaur egun. GAUR8

mundua ezagutzeko duen modua: usaintzen duen, pisatzen duen, zaporea duen mundua ezagutzeko, «eskarmentu gutxi du ikusten ari den hori guztia ainguratzeko».

Haurtzaroko aldi horretan, haurra bere burua eraikitzen ari den garai horretan, ez du inongo aukerarik fikzioa errealitatetik bereizteko. Harentzat, artean, ikusi eta entzuten duen guztia existitzen da eta presente dago. Ondorioz, «dibertsio modura hartzen dute informazioa zein fikzioa. Badakite jolasean ari direla ala pertsonaia dira?». Kontatu zigun, baita ere, Argentinan ugartzen ari direla, kezkatzeko moduan, hizkuntza arloan zailtasunak dituzten haurrak, esaten zaiena ulertzeko zailtasuna dutenak, hain zuzen. Antza, gurean ere gauza bera gertatzen ariko litzateke. Eta ez dezagun

ahantz, hizkuntza estuki lotua dagoela pentsamendurekin. Haur horiek sailkatuko ditugu hainbat trastorno eta arreta arazoen esparruan, adibidez. Zer ote dago, ordea, kasu horietako asko eta askoren atzean? Beldurra ematen du. Bestalde, gure haurrek, gainerako animalien kumeek bezala, gu behar gaituzte eredu. Imitazioz ikasten dizkigute bizitzan aurrera egiteko behar dituzten estrategiak eta jokamoldeak. Ordenagailuaren pantailatik begirada jaso, eta alboan dudanez telefono mugikorrera joan zait begirada. Bat bestearen atzetik etorri zaizkit autobusean amak esku artean mugikorra jarri zion haur hura, oraindik ere oinez ez zekiena; behin aldameneko mahaian zeuden sei urtez azpiko anaia-arreba haiek, aitarengandik mugikorra jaso zutenak bakea eman zezaten afal garaian. Geroz eta sarriago eta geroz eta leku gehiagotan aurki ditzakegun adibideak.

Myrtha Chokler FUNDARIko, Umeen Eskubideen Aldeko Fundazioko, zuzendaria da. Norbaiten beharrean daude, bai, haur koitaduak! •

{ koaderno } Iker Barandiaran

Entzun hitzak

Musika konposatzea sormen lan zirraragarri eta handia da, sortzaileek eta entzuleok, biok, gozaten duguna. Musikaren edo hobe esanda kantua-
ren kontzeptuan hitzak eta mezua egoten dira ia beti barne. Eta horrek guztiak egiten du abestia, emaitza ia bere osotasunean.

Hala ere, zenbateraino erreparatzen diegu entzuten ditugun kantuen mezu edo istorioei? Askori, ingeles hizkuntzan abestua direlako, ez diegu jaramonik egiten, eta esango nuke neurri handi batean ez dugula haiek irakurtzeko ahalegina egiten. Lehen (aspaldi) ohikoa zen diskoa entzun bitartean berorren liburuxka ikuskatzea. Gaur egun, berriz, lan originalez pasotzen da kasu askotan, tendentzia da kantua deskargatu eta pilatzea; eta horrek dakar taldeek beraiek eta beraien mezuek nortasuna galtzea neurri handi batean. Nolabait esanda, kontsumitu egiten ditugu kantuak, baina askotan ez dugu askorik sakontzen.

Eta zertaz hitz egiten digute kantu horiek janzten dituzten hitzek edo zer mezu ezkutatzen da doinu eta erritmo horien atzean? Musikariei edo sortzaileei galdetzen badiegu, askotan esan ohi digute pena dela beraiek burmuina astindu eta barruan daramatena hustu ostean jendeak jaramonik ez egitea. Beste batzuek, berriz, ia oharkabean onartuko digute musika horri jarri beharreko ahotsak eta testuak direla, besterik gabe. Badirelako guztien artean hitzei garrantzia handia ematen ez dietenak ere.

Bestalde, bada teoria ia unibertsal bat dioena idazten diren hitz eta istorio guztiak heriotzaren eta maitasunaren, hau da, bizitzaren gainekoak direla. Horren barruan daude ezintasunak, desioak, galerak, ametsak eta beste. Baliteke egia izatea! Baina horren barruan ñabardura eta irakurketa ugari daude. Hala, esaterako, gurea moduko herri zapaldu, borrokalaria eta gatazkatsuan asko dira salaketari, aldarrikapenari eta kritikotasunari emandako lerro edo orduak. Tran-

tsizio garaiko bakarlarietatik hasita, 80ko hamarkadan orain baino askoz gehiago, baina badira oraindik ere halako asko. Baina hori neurri batean eraldatuz joan da eta hainbat kasutan mezu zuzen-zuzenak eman beharrean, metaforak eta zeharkako mezua erabiltzen dira. Hala, zenbait idazle eta kantugilek nahiago izaten dute irakurlearen edo entzulearen eskuetan neurri bateko interpretazioa airean uztea. Horien artean, badira baita ere hitzak idazterakoan idazlearen testuak egokitzen dituztenak eta baita ere idazle/poeta/bertsolariengana zuzenean hitzen eske joaten direnak. Azken horien artean bereizi ditzakegu idazleari gaia edo norabidea ematen dietenak, eta bestelakorik gabe musikari jartzeko “hitz dotoreak” behar dituztenak.

Kontuan hartu behar da hitzek musikak bezalaxe taldeari nortasuna eta izana ematen diotela. Aintzat hartu behar da ere kantu bat egiterakoan askotan entzuteko egin dela, edo hala nahiko lukeela behintzat

Zenbateraino erreparatzen diegu entzuten ditugun kantuen mezu edo istorioei? Egun tendentzia da kantua deskargatu eta pilatzea; eta horrek dakar taldeek eta haien mezuek nortasuna galtzea neurri handian

idatzi duen horrek. Hortaz, musikak bezalaxe hitzak ere hainbat alditan errepikatua izateko, entzuleak bere egiteko eta irauteko zerbait izan behar du. Eta zergatik ez, entzunaldi desberdinetan berorren elementu desberdinak deskubritzen joateko aukera eman behar du. Ez al da ba musika, beste gauza asko bezala, bilaketa? Izan ere, kantua osatzen duten musika eta hitzez gain hirugarren adar bat faltan dauka abestiak: entzulea, hain zuzen ere. Horrek ematen dio sorkuntzari zentzua (hala modukoa), balioa, izaera, distira (edo iluntasuna), indarra, hurbiltasuna eta, azken finean, osotasuna; egileari bueltan etorriko zaion hori guztia. •

«Tokiko produktu gutxi edukiko ditugu ez badiegu eusten sustraian dauden erronkei»

Hamar urte barru elikadura sistema iraunkorra izan dadin behar diren ikerketa eta berrikuntzen gaineko proposamenak egiteko hausnarketa prozesua abiatu du Europa mailako Fit4Food2030 proiektuak. Mirene Begiristain eta Goiuri Alberdi, hurrenez hurren ekonomian eta nutrizioan doktore eta EHUko Finantza Ekonomia II saileko ikertzaileak gidatzen ari dira EAEn europar proiektu hori. 2030ean Europar elikadura-sistema jasangarri bat izateko Europako Batzordeak zer ikerketa eta berrikuntza sustatu behar dituen proposatzea da proiektuaren helburua. Elikadura sistemarekin lotutako Euskal Herriko askotariko hainbat eragilek parte hartzen ari dira hausnarketa prozesu horretan.

Lehenengo hausnarketa saioan, elikadura sistema jasangarri bat lortzeko erronkak finkatu zituzten. Bigarrena ostegunean izan zen, eta saio horren bezperan proiektu horretaz luze hitz egin zuen Mirene Begiristainek GAUR8rekin.

Aldez aurreko beste hausnarketa batetik abiatu zarete, nonbait: egungo elikadura sistema ez da iraunkorra.

Bai. Gu azkeneko urteetan bagabiltza elikadura-sistemak aztertzen, eta zenbait ikerketa proiektu dauzkagu horrekin lotuta. Gaur egun nahiko onartuta dago iraunkortasuna irizpide nahiko transbertsala izan behar dela. Ildo horretan, jasangarritasunak arlo desberdinak biltzen ditu. Izan

MIRENE BEGIRISTAIN

FIT4FOOD2030 PROIEKTUAREN GIDARIA

EHUko ekonomia-doktorea eta ikertzailea,

Goiuri Alberdi nutrizio-doktore eta

ikertzailearekin batera Europako

Fit4Food2030 proiektuaren arduraduna

da EAEn Mirene Begiristain. Elikadura

sistema iraunkorra izan dadin, ikerketa eta

berrikuntzan dauden hainbat hutsune

bilatu eta horien arabera proposamenak

egingo dizkiote Europako Batzordeari.

Xabier Izaga Gonzalez

ere, proiektu honetan parte hartzen ari diren eragileen artean, hiru bilkura dauzkagu eta lehenengoan jasangarritasuna zer den eztabaidagai izan da, ikuspegi desberdinak egon daitezkeelako. Jasangarritasunaz hitz egiten ari garenean gauza beraz ari garenez ziurtasuna izan behar dugula iruditzen zaigu, baina sarri ez da horrela gertatzen, batzuentzat iraunkortasun ekologiko eta sozialak garrantzi gehiago eduki dezakeelako, beste batzuentzat ekonomikoak, beste batzuentzat kulturalak... Jasangarritasunak dimentsio desberdinak biltzen ditu. Baina bai, badago ia denen kezka bat, jasangarritasunak presentean egon behar duela 2030 horizonte horretan, Europar agertoki horretarako politikak finkatzen ari dira eta.

Euskadiko Fit4Food2030 proiektuko laborategi honetan, jasangarritasuna bakoitzarentzat zer den eztabaidan murgildu beharrean, benetan lanean jartzea planteatu dugu, 2030 horizonte horretarako elikadura sistemari lotutako ikerketan eta berrikuntzan ditugun beharrak aztertzea. Ea ondorioetara iristen garenean, hemendik Europako Batzordera proposamenak eramateko eta ea denon jasangarritasunaren ikuspegia errespetatzen den.

Ikuspegi desberdinak, hainbat eragile bildu baitituzue.

Laborategi hau koordinatzen dugunok badaukagu geure ikuspegi propioa, lurralde ikuspegia, beharbada zabala goa izan beharko lukeena, eta badaukagu ikerketaren eta berrikuntzaren ikuskera propioa ere, baina askoz ere aberasgarriagoa iruditzen zaigu mo-

mentu honetan behintzat pauso batzuk emateko mota askotako eragileak elkartu eta gai honen inguruan hausnarean jartzea. Dena den, Fit4Food2030 proiektuaren lidergoa Amsterdameko Unibertsitateak dauka, eta han elikadura sisteman ikerketa eta berrikuntza modu holistikoan hartuta ulertzen ari dira; hau da, sistema horretan dauden eragile desberdinak hausnarean jarrita.

Horregatik, erakunde publiko eta pribatuak parte hartzen ari dira, hala nola EHUko beste ikerlari batzuk, Ihobe, Orkestra, Erika, Neiker, Leartiker, HAZI... baita elikadura-sistema bere osotasunean ulertzeko guretzat oso inportanteak diren beste batzuk ere, adibidez EHNE Bizkaia eta Gipuzkoako ENBA sindikatuak, edo nekazaritza sistemarekin eta baserritarrekin zuzeneko harremana duten elkarteak: ENEEK nekazaritza ekologikoren kontseilua, Bizilur internazionalismo mailan Via Campesinarekin harremana duena, EHKolektiboa, Ekoizpen Urduña, D'elikatuz eta gehiago, guztiak ere Euskadi mailan proiektuak abian jartzen ari direnak. Beraz, eragileak mota askotakoak dira.

Dagoeneko ikerketa eta berrikuntza arloak zehazteko erronkak finkatu dituzue.

Euskadiko Fit4Food2030 laborategiak 2030 agertokian elikadura sistema jasangarria izateko beharrezkoak ditugun ikerketa eta berrikuntza arloak zehaztea du helburu. Bada, ildo horretan lau lan ardatz nagusi zehaztu ditu, non Euskadira ikerketa eta berrikuntza beharrak zehaztu be-

har ditugun, Europako Batzordea gomendio gisa helarazteko. Hauek dira lau ardatzok: ekoizpen ereduak, enplegua eta trukeak; nutrizioa, osasuna eta ongizatea; ingurumenaren jasangarritasuna; eta gobernantza eta komunitateen ahalduntzea. Eta lau ardatz horietan beste hiru ardatz transbertsal ere lantzen ditugu: generoa; gazteria eta kultura; eta harreman ereduak, nolabait azken hiru ardatzok beste guztietan daudelako. Guztiak ere Garapen Iraunkorreko Helburuekin lerrokatuta daude.

Nutrizioaren arloan, egin genuen lehenengo saioan eragileek ere azpimarratu zuten beharrezkoa dela curriculumean elikadura sartzea eta osasun sisteman parte hartzen duten, ardura duten eta aholkuak eman behar dituzten adituen parte hartzea, nutrizioa nola landu eta horren inguruko komunikazioa nola sustatu behar den ere aztertzeke. Saio horretan adostasun horretara iritsi ginen, eta arlo horretan sakondu egin behar da.

Finkatutako erronketako batzuk baserritarren baten edo lau txororen kontua direla eman zezakeen duela gutxi. Bai, lau hippyrena. Identifikatu diren arloen artean, ekoizpen mailan erreleboa erronka nabarmena da. Gaur egun lurrrari begiratzea ahaztu zaigu, eta politika publikoek erantzukizun handia izan dute. Errelebo horri ez zaio behar den garrantzia eman.

Tokiko produktuen balorizazioari dagokionez, horien kontsumoa sustatu nahi da alde guztietatik, baina tokiko produktu gutxi edukiko ditugu ez badiugu eusten sustaian dauden erronka horiei, bereziki ekoizpen mailan



Goiuri Alberdi eta Mirene Begiristain (eskuinean), Donostiako Ekonomia eta Enpresa fakultatean, bigarren hausnarketa saioa hasi baino lehen. Argazkiak: Gorka RUBIO | FOKU

«Gaur egun lurrrari begiratzea ahaztu zaigu, eta politika publikoek erantzukizun handia izan dute. Ekoizpen mailan, erreleboari ez zaio behar den garrantzia eman»



erreleboa, lurrraren gabezia, lurraldearen antolaketa zentzu horretan... Eta araudiak funtsezkoak dira. Tokiko produktuak ezingo ditugu kontsumitu baserritarrik ez badugu, eta zaila egiten ari zaigu zehaztea, nik uste, zer behar den errelebo hori emateko. Hor hainbat hutsune daude, ea laborategian, bigarren saioan, zer adostasunetara iristen diren eragileak, zer hutsunetatik hasi behar dugun errelebo horri bide emateko.

Guk geure aldetik, ikerketa talde bezala, honi lotuta badauzkagu beste asmo batzuk irekita, baina laborategi honi nolabait autonomia eman nahi diogu, Europako Batzordeari egin nahi zaizkion proposamenak zein diren eraba-

ki, guk zer egin behar den esan gabe.

Berrikuntza diozuenean ez zarete berrikuntza teknologikoak bakarrik ari, ezta?

Ez. Berrikuntzak hainbat aurpegi ditu. Norekin egiten den berrikuntza, zertan egiten den eta zertan ez, nola egiten den baloratzea oso inportantea da. Berrikuntza soziala edo berrikuntza biguna ere esaten zaiona lantzea ezinbestekoa delako gaur egun prozesuak, inplikatuak eta ondorioak aurrez baloratu nahi baldin baditugu modu estrategikoan. Orduan, nolabait ikerketaren eta berrikuntzaren betiko ikuspegi klasiko hori gainditzea da kontua; hau da, berrikuntza goi maila batean egongo balitz bezala eta beste berrikuntza

mota batzuk ere badirela kontuan hartzen ez duen ikuspegia. Emaitzetatik harago prozesu bat nola eraikitzen ari garen oso inportantea da, zentzu zabalean benetan iraunkorra izateko.

Aste honetan bertan, bigarren saioan, erronkak ikerketa eta berrikuntzarekin uztartzeko helburua duzue.

Guk, koordinatzaileok, esan bezala, geure ikuspegia daukagu, baina inportantea iruditzen zaigu eragileek eztabaidatu eta adostasunera iristea. Euskal elikadura sistemako ikerketa eta berrikuntzatzat zer jotzen dugun, euskal elikadura sistemak hemen behintzat nola garatu beharko lukeen, nolako prozesuak jorratu behar ditugun eta prozesu ho-

rietan nork egon behar duten inplikatura eztabaidatzea. Eta hori, adostutako definizio horretatik, elikadura sistemak dituen erronkekin lotu. Ea hori finkatzen dugun. Asmoa da euskal elikadura sisteman zein hutsune ditugun aurkitzea ikerketari eta berrikuntzari dagokienez, eta noiz eta norekin jorratzekoak liratekeen hutsune horiek.

Horretarako, dinamika interesgarriak prestatu ditugu. Denok ikusi dezakegu, adibidez, ekoizpen ereduen edo base-rien erreleboaren gaia, osasunarena eta nutrizioarena erronka garrantzitsuak direla. Eta ikerketa eta berrikuntzatik zer egin dezakegu? Gauza batzuk jakin ditzakegu; esate baterako, curriculumean sar ditzakegu, eta, horretarako, zer egin behar dugu, zer ikerketa eta berrikuntza garatu ahal ditugu? Adituekin formazioa eta beste zerbait... eta hori egiteko, zer? Horrela beti iritsiko gara hutsune batera, hori gertatzeko zerbait egiten ez gabiltzan puntu batera. Horregatik da erronka, ikerketa eta berrikuntzan zer hutsune ditugun bilatu behar delako elikadura sistema jasagarri hori 2030ean hemen egia bihur dadin.

Bigarren saio honetan proiektua lurreratu nahi dugu. Hutsune horiek nolabait zehaztu egin behar ditugu: nola bete, zer finantzaketa behar dugun, zer lehentasun dauden, nork parte hartu behar duen...

Hornidura publikoaren gaineko irizpideak eta helburuak zein dira?

Gaur egun, konkurrentzia libreko testuinguru honetan, irizpide gutxi daude tokiko produktuei dagokienez. Poliki-poliki proiektu pilotu batzuk



ari dira garatzen, eskola jantokieng inguruan, eskola pilotu batzuek pauso batzuk eman dituzte, eta badaude beste proiektu piloturen batzuk Azpeitian, Elikagunearekin lotuta, irizpide sozialak sartu nahi dira zahar etxean; Gipuzkoako Aldundiak ere badu proiekturen bat... Lehenengo pausoak ematen ari gara gai honetan, harrigarria bada ere. Badaramatzagu ez dakit zenbat urte tokiko produktuez hitz egiten eta eremu publikoetan klausula sozialak ez daude hain zabalduta. Hor hutsuneak badira. Kontua da zergatik gertatzen

«Ikerketa eta berrikuntzan zer hutsune ditugun bilatu behar da 2030ean elikadura sistema jasagarria egia bihur dadin hemen»

den hori, zergatik hornidura publikoarekin lotutako irizpide eta helburuak ezartzeko zailtasunak dauden. Hutsune horiek identifikatu eta ekoizpen inguruneak eta lurra nola babestu aztertu behar dugu, hornidura horri ere erantzuteko. Zergatik ez dago lurra eskuragarri, zergatik ez dago lurra- ren babeserako lege bat...? Hor egoera desberdinak daude jasagarritasunaren arloan, eta ea Fit4Food2030 Euskadiko laborategian parte hartzen ari diren eragileek zer hutsune identifikatzen dituzten eta helarazten ditugun.

Gobernantzari lotutako erronken artean, Hirigintza Antolamendurako Plan Orokorra aipatzen dira, udalei lotuta daudenak. Oso auzi interesgarria da, elkarriketan jartzen baititu nolabait gobernantza maila desberdinetako instituzioak; Hirigintza Antolamendurako Plan Orokorretan, udaletan lurra babesteko irizpideak ezarri eta erabakiak hartu ahal dituzte.

Gaur egun eztabaidan dago Europako Nekazaritza Politika Bateratua, horren inguruko hausnarketa irekita dago unetan hurrengo ziklorako, eta hemen ez da eztabaida handirik izan, Ipar Euskal Herrian gehiago. Baina gobernantzari lotutako erronkak ere badaude, hirigintza planetan, Nekazaritza Politika Bateratuaren inguruan, eta EAEk dauzkan eskumenei lotuta. Ea gobernantzaren arloan, maila desberdinetan gobernantzan dauden instituzioei dagokienez, eta dauzkaten eskumenei lotuta, zer hutsune topatzen dituzten eragileek eta zer egin daitekeen. Ideia batzuk badiugu, baina eragileek esango dute bigarren saioan. Gai potoloak dira.

Baina ez ote dago bigarren mailakoak diren sentsazioa?

Larrialdi klimatikoaz hitz egiten dugunean, adibidez, iruditzen zaigu gure esku ez dauden gai oso potoloetara joan behar dugula. Bada, elikadura sistemaz hasten bagara, gauza asko egin daitezke horri begira, eta horretan gaude, horri eutsi nahi diogu zuzen-zuzenean, eta uste dugu aukera interesgarria dela Europako Batzordeari hemendik egiten diren proposamenak eta gomendioak helarazteko. Eta hausnarketa gunek honek bide

ematen baldin badu, interesgarria izango litzateke lurraldean ere jostea, beste zerbaierako baliagarria bada, ikerketa proiektu konkretuak abiatzeko eragileen artean edo dena delakoa. Baina hori ez dago gure esku. Guk espazioa irekitzen dugu eta saiaturako gara ahalik eta emankorrena izan dadin.

Proposatutako egin zizueten proiektua gidatzea?

Ez, guk eskaera luzatu genion Eusko Jaurlaritzari, Nekazaritza Sailari eta EHUko errektore Nekane Balluerkari, eta baime-na eman ziguten hau abian jartzeko. Azkeneko momentuan sartu ahal izan ginen. Guk *motu proprio* egin genuen. Normalean, beste herrialdeetako laborategietako ordezkari edo koordinatzaileek politika publikoekin lotura zuzena dute; esate baterako, Nekazaritza Saileko ez dakit nor, eta gu gara zentzu horretan profil desberdinena daukagunak, politika publikoko laborategi bat gidatzen ari garen ikertzaileak. Proiektu honen berri jakin genuen eta eragile publikoen abalak behar genituen. Egun batetik bestera eman ziguten baimena. Gure ekimenez hasi da hau, honetan sinisten dugulako.

Badaukagu eskarmentua horrelako proiektuetan. Nik nekazaritza ekonomian hogeitaz urte baino gehiago daramatzat lanean. Prozesu hauek ezagutzen ditugu eta badakigu prozesu kolektiboak eta profil anitzeko eragileak egoteak zer-nolako garrantzia daukan. Sinisten dugu pausoz pauso gauzak egiten joango garela. Gero gauza bakoitzak ematen du ematen duen neurriraino, baina ea noraino iristen garen.

«Proposamenak Europako Batzordeari egin arren, ea zer dagoen gure esku jorratu ahal izateko, zeren egongo da mami nahiko bertan ere horri ekiteko»

Proiektua bide onean doala esango zenukete?

Pozik gaude. Hau laborategi bat da, modu itxi batean deitu genituen eragileak, zerrendatuta, eta deitu genituenek oso ondo erantzun dute, jende gehiena etorri da eta lehenengo saiora etorri ez ziren batzuk, zenbat jende etorri zen ikusita, bigarrenera etorriko dira. Arrakastatsutzat jotzen dugu, momentuz behintzat, egiten ari garena.

Espero izatekoa da, beraz, zuen eta beste batzuen lanaren emaitza nabaritzea, hemen eta Europa osoan.

Hori da. Europako Batzordeari proposamenak iritsiko zaizkio, gutxienez. Eskualde guztietan egiten diren proposamenak Europako Batzordearekin harreman zuzenean dagoen *think tank* batera pasako dira. Aukera bat da, eta aukerak aprobetxatu egin behar dira.

Hirugarren saioa noiz egingo duzue?

Uda aurretik egingo dugu, eragileekin adostuta. Zehaztutako hutsune horiek jorratzera sartuko gara. Eta proposamenak Europako Batzordeari egin arren, ea zer dagoen gure esku jorratu ahal izateko, zeren

egongo da mami nahiko bertan ere horri ekiteko, baloia kanpora bota gabe, Batzordeari bakarrik bota gabe.

Beste ezer azpimarratu nahi duzu?

Zer-nolako beharra dugun hau egiteko. Denon ardura da, baina ikerketa eta berrikuntza zehazteko eta elikadura sistema 2030ean jasangarria izateko elikaduraren ikuspegi sistemikoa izan behar dugu, sistema osoan parte hartzen ari diren eragile guztiek dute zer esanik ikerketa eta berrikuntza garatu ahal izateko. Espero dugu baliagarria izatea.





Juan Carlos RUIZ | FOKU



IKUSMIRA

104 ASTELEHEN

«*No hay pan para tanto chorizo*». Astelehenero-astelehenero, azken 104 astelehenetan. Eskolatik atera eta bazkaltze-
ra bidean entzuten dituzuen leloek grazia egiten zizueten hasieran, zuen jakin-mina piztu zuten gero eta orain, 104 as-
telehen geroago, indarrez oihukatzen dituzue. Haurrak zarete zuek, helduak dira pankartaren atzetik protesta egiten
dutenak, zuen aitona-amonon parekoak edo. «Zergatik egiten dute protesta?». Bizitza osoan borrokatu duten helmuga
bera dute begietan: duintasuna. Duin bizitzeko modua, ez dute ez gehiago ez gutxiago eskatzen. Eguzkitan edo euri-
tan, hotz edo bero, ez dute etsi. Eta dagoeneko joan dira bi urte. Ez omen dute errenditzeko asmorik, beren aldarrikape-
nak lortu bitartean segituko omen dute borrokan. Duintasuna. Hitz potoloa iruditu zaizu, «normal zaharrek manifesta-
zioa egitea astelehenero». Besteak, pentsionisten borrokari begira gaudenak, haiek aldarrikatzen duten «duintasun»
hori ba ote dugun galdetu didazu gaur. Punta zorrotzeko haurren galderak. Isilunea luzeegia iruditu eta zurearekin segi-
tu duzu, «*no hay pan para tanto chorizo*». Amagoia Mujika Telleria

Hurrengoan izango da

Miren Azkarate
Badiola

Urte berriarekin batera pasatakoaren balantzea egiten dugu eta datorrenarentzako desioak, nahiak, helburuak eta horrelakoak finkatzen ditugu. Egia aitortu behar dut: aurrekoaren balantzea oraindik ez dut egin eta datorren honetarako tipikoak direnak, erretzeari utzi edo kiroldegira joan, ez ditut jarri utzi niolako erretzeari eta kiroldegira joateari ez diodalako inoiz (edo momentuz) utzi. Baina bada zerbait ni ohartzen ez nintzena eta GAUR8ko kolaborazio honekin zer ikusia duena; nik idatzitako

artikuluen balantzea eginda, badirudi lerro hauetan, gehienetan, haserre tonua edo kexua nabarmentzen zaidala, eta, akaso, umore pixka batekin edo beste ikuspegi batetatik idaztea ere ariketa interesgarria izan liteke... Horiek gertuko lagun baten aholkuak.

Egia aitortu behar badizuet zaila egiten zait zeharo dudan idazteko modu hori alde batera uztea. Izan ere, ingurura begiratzean, ikusten ditudan albiste, gertaera eta bizipenekin poza eta umorea baitira sentitu eta ateratzen zaizkidan azkenak. Baina tira, saiatuko naiz.

Hori bai, hurrengoan izango da, bihar gertatuko den zerbaitek ez baitit uzten artikulua hau alaitasunetik amaitzen; Xua gurasoengandik bereiziko dute eta haiek ikusteko milaka kilometro egin beharko ditu hemendik aurrera. Hiru urte beteko ditu eta inoiz izango duen urtebetetzerik gazi-gozoena izango da, gurasoekin ospatuko duelako eguna baina gero egunero 24 ordu amarekin igarotzetik hilabetean 2 ordu edo asko jota 4 ordu igarotzera pasako delako bat-batean. Nola ez naiz ba haserre edo kexu izango? •

Leiho bat

Antton Izagirre

Eboluzioaren teoria aintzat hartuta asko eztabaidatu izan da gizakiaren sorreraz eta garapenaz. Besteak beste, joandako mendearen erdi aldera Raymond Dart ikerlariak «tximino hiltzailearen hipotesia» argitaratu eman zuen, argudiatuz hezurak eta harriak arma gisa animalien eta espezie bereko beste gizakien aurka indarkeriaz erabiltzeko gure arbasoek garatutako gaitasunean oinarritzen zela gizaki izatearen funtsa. Ikerlari askok arbuiautuzuten arrazoi ezkorra inolaz ere, baina ez zen harritzekoa XX. mende horretan ematen ari ziren gerrak, gatazkak, arma nuklearren arriskuak tarteko, gizakiaren jatorrizko indarkeriaren hipotesi hark ja-

rraitzaile eta sustatzaile ugari erakarri izana.

Gaur egun bertan Ameriketako Estatu Batuek, Iranek, Errusiak, Txinak eta munduko potentzia nagusiek baliatzen dituzten gerra hotsak eta mehatxuak ikusita, ez genuke argudio handirik beharko giza espezie modernoaren funtsa ere teoria harekin lotzeko. Hezurren eta harrien tokian irismen luzeko armak dituzte eskura. Batzuetan aurkariaren armadako buruzagia hiltzeko erabiliko dute eta haren hiletetan hamarnaka herritar zanpatuta hilko dira, besteetan zibilez beteriko hegazkina eraunsteko baliatuko dute. Bihar, bake hitzarmenaz hitz egingo digute; etzi, beste arrazoi batzuk era-

biliko dituzte gizartea indarrez menderatzen jarraitzeko.

Gerturago etorrira, Espainiako Kongresuko eztabaida saioetan eskuindarrek erakutsitako hizkera eta esku-dantza ikusita, inor gutxik jar dezake zalantzan eskuetan hezurak eta harriak izan baliatuzte egin zezaketen erabilera.

Hala ere, etxera begira jarrita, urte luzez gure artean bizi izan dugun gatazka politiko eta armatuari akabera justua emate aldera, larunbatean, presoen giza eskubideen aldeko Bilboko manifestaldian jendarteak erakutsitako aldartea eta borondatea ikusita, leiho bat zabaldu genion esperantzari Axun eta Rosaren aho-tsean. •



> Paretek ere agurtu dute Semper



Borja Semper asteartean, politika utzi duela iragarri zuenean. Eskuinean, Donostiako Parte Zaharreko paretetan idatzitako «agur mezuak».

Juan Carlos RUIZ | FOKU

Borja Semperrek asteartean iragarri zuen bere ibilbide politikoa utziko zuela, «ziklo baten amaiera» dela argudiatuz. Ernst&Young enpresan goi kargu bat hartzeko utzi du PP, ordea. Iragarpenaren ondotik PPren barruan askok goraipatu egin zuten, «ahots independentea» izan dela esanez eta poema idazlea dela ere nabarmenduz. Baita paretek ere. “Semper, poeta, herria zurekin” dioen pintaketa agertu zen Donostiako Parte Zaharreko pareta batean, asteartera arte Gipuzkoako PPren buru izan zenak politika mundua utzi duela iragarri eta gero.

Politikan izan duen ibilbidea ezaguna da, baina Semperrek, halaber, bi liburu ere kaleratu ditu, haietako bat poema liburu bat, eta askok azaleratu nahi izan zuten hori irundarraren irudia zuritzeko. Pareta zuriek, baina, hitz egin dute, ironiaz beterik hitz egin ere. PPren barruan «ahots independente» bezala definitu dutenei pintadek erantzun zieten. “Hasta la victoria Semper”. Zuritze horren aurrean, batzuek gogora ekarri dute Semperrek ez duela sekula politikaz kanpo lanik egin eta ate birakarien azken adibide gisa ulertu dute. «Sekula senperrenak pasa



eta egin ez dituen Semper poeta, multinazionalean biziLARI (bizitzea baita langintza latza). Hori da, hori, politikaren ordain gozoa; ate birakarien magia», zioen @erlantzibar-rek. Beste batzuek, berriz, politikak multinazional batean goi kargu bat eskaini diola gogorarazi dute. Adibidez, @gara_iiriondo-k hauxe idatzi zuen: «Politikari batek bere karguak utzi ditu multinazional baten eskaintza bat jaso ondoren, arlo ekonomikoan eskaintza poto-loagoa, nonbait, eta politikaren hobe beharrez egindako sakrifizioa balitz bezala aurkeztu dute. Ez dut ulertzen».



> Su Ta Gar taldearen «Jo Ta Ke», txalapartaz

Duela 29 urtetik entzun izan dugu Su Ta Gar taldearen ‘Jo Ta Ke’ abestia, baina sekula ez oraingoan bezala. Soilik txalaparta baliatuta, Euskal Herriko zenbait belaunaldiren ereserki izan den abestia jo dute bi gaztek. 1991an kaleratu zuen Su Ta Garrek “Jo Ta Ke” abestia “Jaiotze basatia” izeneko diskoan. Oraindik han eta hemen entzuten dugu abestia, taldeak berak taularatuta edo



bertsioak jotzen dituzten talde ugarik moldatuta. Soinu ezberdin ugari batu eta nahastu izan dizkiote kantari, baita hainbat hizkuntzatan bertsioak egin ere.


Oraingo honetan bezala, baina, ez genuen entzuna. Bi lagunek, soilik txalaparta baliatuta, hainbat belaunaldiren ereserki izan den abestia jotzen dute Whatsapp bidez zabaldutako bideo honetan.

> Ezkongaiak prestatzeko hiru urteko ikastaroa

Espainiako Gotzain Batzarrak ezkongaiak prestatzeko bi eta hiru urte bitarteko ikastaro bat proposatu du, ezkondu aurreko ikastaroek irauten duten hogei orduak ez direla nahiko uste baitute. Ikastaroak sexualitatearekin lotutako hainbat konturi heltzen dieten hamabigai ditu. Atal horretan, gotzainek ezkondu arte kastitatea proposatzen diete ezkongaei eta «pansexualismoaren» arriskuaz ohartarazten dute. Halaber, pornografia eta mas-



turbazioa senar-emazteentzako mehatxutzat jotzen dituzte. Are gehiago, gotzainek diotenez, masturbazioa «egintza larriki desordenatua» da. Bilboko gotzain eta Espainiako Gotzain Batzarreko Familia eta Biziaren Defentsarako Azpibatzordeko presidente Mario Ice-tak azaldu zuen estatistiken arabera bost urte igarota ezkontzen %40 hausten direla, eta, hamabost igarota, %60. Ikastaroetara «hori saihesteko prestatzera gatoz», esan zuen.



> Twitterrek kontu bat itxi ondoren, elkartasun olatua

Twitterrek «behin betiko» itxi du @DonMixel_VI kontua, «pertsona zein talde espezifikoaren aurkako abusu egoeretan parte hartzea» debekatzen duten arauak hausteagatik. Antza denez, kontu horren erabiltzaileak parte hartu zuen elkarrizketa hau gertatu ondoren hartu zuen sare sozialak neurri hori: «Zer da Boxing Day?».



«Abenduaren 26an jokatzeko den futbol ingelesaren jardunaldia». «Eta Football Day Boreoaren Eguna da?». «Ingelesak dira. Azalpen gehiago behar al dira?». «Spanish kay batekin jotzeko modukoa da, aizu». Hartutako neurriak elkartasun olatu bat eragin du Twitterren, #DonMixelAskatu traola darabilena.



Amaia Urrejola

Sexologoa eta psikologoa Euskal Herriko Sexu Heziketa Eskolan

Sexualitatea zahartzaroan

Zahartzea ez da gaixotasun bat, prozesu natural bakar eta errepikaezina baizik. Beraz, zahartzaroa, eraikuntza soziala da. Etapa izan beharrean, prozesu luzea delako eta 30 urte inguruan hasten delako. Hortaz, denok bide berean gaude. Hala ere, erretiroa hartzearekin hasten den fase berriarekin bateratu dugu. Ondorioz, aldaketaz beterik dagoen bizitzako beste eta azken etapa bezala identifikatzen dugu. Testuinguru horretan eta sexualitatea aintzat hartuz, denbora eta esperientzia, garrantzizko bi aliatu bilakatzen dira. Alde batetik, presa gutxiago dugu, motelagoak gara, baina baita samurragoak ere. Bestetik, gure buruari dagokionez, adituak bihurtzen gara. Baina, pertsona nagusien sexualitateari buruz hitz egiten ez denez, balio horiek ezkutuan gelditzen dira.

Aipatzen ez dena hutsaren hurrena da eta, ondorioz, sexurik gabeko zahartzaroaren ideia elikatzen ari gara. Nahiz eta errealitatea oso bestelakoa izan. Ikerketen arabera, zahartzaroan sexu jokabidea dago eta askotarikoa da. Horrez gain, sexualitatearen adierazpen asko ez dira adinarekin desagertzen, aldaketa fisiologikoak oso aldakorak dira, asetze subjektiboa ez da zertan galtzen eta komunikazioa eta kontaktua sustatzen dituzten ekintzekiko interes handia dago. Horrekin batera, adinarekin, jarduera erotikoa-ren maiztasuna jaitsi egiten da. Aldiz, kantitatea ez da kalitatearen sinonimo, frekuentzia gutxiago eta gozamen gutxiago baliokideak ez diren bezala. Grina, atrakzioa, sedukzioa, irrika, sentsualitatea, desira eta maitemintzea berdin esperimentatzen dira, batez ere, bikote berrietan. Bukatze-ko, intimitateak eta afekti-

bitateak garrantzi gehiago hartzen dute, hau da, konpainiak eta konplizitateak. Eta jarduera sexuala, aniztasun erotikoa oinarritzen da, ez jokabide koitalean: begiradak, musuak, laztanak, masturbazioa, besarkadak, eskutik heldzea, eta abar. Baina, nagusien sexualitatea, ugaltze paradigmatic begiratzen jarraitzen da. Nahiz eta ugalketa ez den beraien helburua. Ondorioz, ez da existitzen eta ezin daiteke adierazi. Horri, matxismoa eta balore kulturaletan sufritu dugun inboluzioaren eragina ere gehitu behar diogu: adinarekiko nazka eta zahartzaroak emakume aurpegia izatea. Izan ere, emakumeek, beraien sexu eskubideak bermatzeko zailtasun gehiago dituzte: familiaren gaitzespenari beldurra, bikote berriaren zaintzaile izatea, errepresio sozial handiagoa sufritu izana, alarguntzan hil arte leial izatea, LGBTfobia, gizon gutxiago egotea, eta abar.

Laburtuz, zimurtuta dau-den pertsona zaharrak ez-kutatzen dira eta sexualitatea galarazten zaie. Gerontologia feministan aditua den Ana Freixasen arabera: «Ez dugu adinaren imajinarioari edukia ematen dion figura positibo, eraginkor eta trebeetan oinarrituriko eredurik».


Hala ere, sexualitatearen adierazpena adin guztietan kultibatu daitekeen eraikuntza da. Gainera, zahartzaroa, sexualitateaz gozatzeko aukera bikaina izan daiteke. Horretarako, norbanakoaren historia sexualak, zahartzaroko ezaugarriek baino eragin gehiago duela kontuan hartu behar da. Baita alarguntza eta dolua garai honetan nagusitzen direla ere. Bakardade soziala eta emozionala, hain zuzen. Batez ere, emakumeen artean. Funtsean, bakardadeari aurre egiteko antidotoa sexu askapena izan daiteke. •



Denbora eta esperientzia, zahartzaroaren bi aliatu. GAUR8

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



M. DUMONT. BORDELE

TURISTAK BIARRITZEN 1900EAN, OLATUEI BEGIRA

1843an, Victor Hugo idazleak Euskal Herriko zenbait herri bisitatu zituen; haien artean, Biarritz. XIX. mendearen azken herenean, Emile Zola, Alexandre Dumas eta beste idazle batzuek ere bisitatu zuten Lapurdiko herria. Ordurako, Biarritz Europako turismoaren hiriburu bihurtua zen. 1854an, Napoleon III.ak eta Maria Eugenia Palfoxek Villa Eugenie eraikitzeko agindua eman zuten, zenbait urte geroago Hôtel du Palais izango zena, alegia. XX. mende hasieran, Coco Chanel bisitatu zuen Biarritz, eta 1915ean *boutique* bat zabaldu zuen, Europa Lehen Mundu Gerran murgiltzen zen aldi berean. XIX. mende amaieran, Biarritzko *quincaillerie* garrantzitsuenetako bat gobernatzen zuen Bordeleko merkataria familia batek, Dumont sendiak, hirian eman zuen uda. Familia hartako kide bat argazkizalea zen eta 1890tik 1910era bitarteko 70 argazki baino gehiagoko album bat utzi zuen. Irudiotan Euskal Herriko zenbait herri azaltzen dira, hala nola Biarritz, Hondarribia, Itsasu eta Donostia. Britainiako beste zenbait herri ere agertzen dira. Artikulua ilustratzen duen irudia Biarritzen egina da, 1900ean. Bertan zenbait turista ageri dira, itsasertzean lehertzen diren olatuei begira.

ireki gure leihoa



GAUR8

